

Oinarrizko gida

Ikus-entzunezko produkzioetarako Jasangarritasun Plana



2022ko martxoan
1.0 bertsioa

Aurkibidea

Sarrera

Hitzaurrea
Zinemaren ingurumen-eragina

Jasangarritasun-Plana

1. Helburuak
2. Jasangarritasun-neurriak
3. Planaren kudeaketa

Neurriak

- A. Energia aurrezte
- B. Garraioa eta ostatua
- C. Janaria eta edaria
- D. Materialak hautatzea
- E. Hondakinen kudeaketa
- F. Kanpoko komunikazioa
- G. Beste neurri batzuk

Eranskinak

Neurrien laburpena
Tresna osagarriak
Beste baliabide batzuk

Hitzaurrea

Gidaren helburua da zinema-ekoiztetxeek jasangarritasun planak prestatzea euren produkzioetan.

Klima-larrialdia eta biodibertsitatearen galera dira gizateriaren erronka handienetako bi. Horiei aurre egiteko, Euskadiko produkzio-sektoreek energia eta baliabide naturalen erabilera murrizteko bitartekoak jartzeko konpromisoa hartu dute. Euskadiko ikus-entzunezkoen sektoreak erronkarekin bat egiteko aukera du, zinema modu jasangarrian produzitzeko eskualde erakargarri bihurtzeko, bai planetaren eta bai pertsonen mesedetan.

Euskadin zinema jasangarria produzitzeko oinarrizko gidaren helburu nagusia da produkzio-enpresei laguntzea jasangarritasun-plan bat prestatzen. Dokumentu horretan urratsez urrats aurkezten da plan hori prestatzeko eta produkzio-prozesuan sartzeko modua, hainbat arlotan aplikatzeko jasangarritasun-neurri batzuekin batera.

Gida hori prestatzeko zinema jasangarriaren erreferenteak diren hainbat ekimenen gomendioak bildu dira. Baina, nagusiki, egitura eta kontzeptu nagusiak Green Film ziurtagirian oinarritzen dira, hau da, CineRegio sareak hartutako estandarrean (zinemarako eskualde-funtsen eta Europako Film Commissions direlakoaren sarea; haren parte da Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Saila). 2024tik aurrera, aurreikusi da zigilu berde hori ezartzea Eusko Jaurlaritzaren ikus-entzunezko kultura-politikan, garatu ahala.

Ikus-entzunezko produkzioetarako Jasangarritasun Planaren oinarrizko gida Basque Green Film (BGF) idazkaritza teknikoaren ekimena da, Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak sustatuta, zinema jasangarriaren Planaren (2022-2024) ekinzen barruan.

Gainera, ikus-entzunezko sektorearen eragile nagusiek adostasuna eta laguntza eman dute, eta, zehazki, Euskadiko hiru Film Commission batzordeek (Bilbo, Donostia eta Gasteiz) eta zinema eta ikus-entzunezkoen ekoiztetxeen elkarteek (Apika, Eiken, EPE-APV eta Ibaia).



Gida hau Green Film ziurtagirian onarrituta dago. 2024tik aurrera, aurreikusi da zigilu berde hau ezartzea Eusko Jaurlaritzaren ikus-entzunezko kultura-politikan.

Zinemaren ingurumen-eragina

Pertsona eta materialen garraioa ikus-entzunezko produkzio baten karbono-aztarnaren % 50 inguru da.

Gaur arte ez dira kalkulatu berotegi-efektuko gasen isurtzeak Euskadiko ikus-entzunezko sektorean. Momentuz, beste herrialde batzuetan egindako azterlanak daude, eta, diferentziak alde batera utzita, erreferentziatzat har daitezke arazoa ulertzeko eta puntu kritiko komunak identifikatzeko.

Ikus-entzunezko produkzio baten ingurumen-eraginari dagokionez, etapa biziena filmaketa da: egun edo aste batzuetan zehar baliabide ugari eta energia handia kontsumitzen dira. 2021ean SPA edo Sustainable Production Alliance erakundeak (PGA edo Producers Guild of America erakundeko estudio nagusiek osatutako taldea) agindutako txostenaren arabera, Estatu Batuetako ikus-entzunezko produkzio baten isurtzeak 391 CO₂ tonakoak dira 10 milioi dolarreko produkzio batean, eta 3.370 tonakoak 70 milioi dolarretik gorako superprodukzio batean. Bestalde, Albert zigilu berdearen 2019-2020 txostenaren arabera, Erresuma Batuan telebistarako fikzio-produkzio batek, nagusiki kokalekuetan filmatuta, 24 CO₂

tonako karbono-aztarna sortzen du eduki-ordu bakoitzeko. Azkenik, Euskadin, biztanleko isurtzeak, batez beste, 8,4 tonakoak dira urtean.


Aurreko erreferentziekin, datuak gutxi gorabehera estrapolatuta, zenbatets daiteke **2 milioi euroko aurrekontua duen fikziozko film luze batek 50 eta 90 CO₂ tona arteko karbono-aztarna izango lukeela**, hau da, Euskadiko pertsona baten isurtzeak 6-8 urtez.

Bi txostenak bat datoz honako hau adieraztean:

- Isurtzeen iturri nagusia pertsona eta materialen garraioa da, eragin osoaren % 50 inguru baita.
- Isurtzeen bigarren iturri handiena kokaleku, plato eta produkzio-bulegoetan erabiltzen den energia da.
- Zenbat eta handiagoa izan ikus-entzunezko produkzio baten aurrekontua, orduan eta handiagoa izango da ingurumen-eragina.

Kontuan hartzen bada garraioa eta energia gehienbat erregai fosilen menpe daudela, ondoriozta daiteke horiek direla ikus-entzunezko produkzio baten karbono-aztarna handiena sortzen dutenak. Beraz, zinema-sektore jasangarriagoa lortzeko, lehenetsia eman behar zaio energi berriztagarrien erabilerari, baita energiaren aurrezpen- eta efizientzia-neurriei ere. Noski, ezin dira alde batera utzi materialen berrerabiltzea eta birziklapena, eta tokiko baliabideak lehenetsi behar dira.

Nagusiki kokalekuetan filmatutako telebistako fikzio-produkzio baten batez besteko isurtzeak Albert annual report (2019-2020).



Jasangarritasun Plana

Jasangarritasun Plana da produkzioetan zinema jasangarriaren irizpideak sartzeko oinarrizko tresna.

Plan hori jasangarritasunaren kudeaketaren tresna nagusia da zinema-produkzio batean. Bertan, helburuak finkatzen dira, neurri espezifikoak hautatzen dira eta arduradun nahiz epeak zehazten dira. Prestaketa errazteko, gida honekin batera eredu-txantilo bat eta autodiagnostikorako tresna sinple bat proposatzen dira.

Plana produkzioaren garapen-fasean idazten bada, zenbatetsitako datu eta informazioetan oinarrituko da. Filmaketa-data baieztatu ondoren eta preprodukzio-fasea hurbiltzean, gomendatzen da hura berrikusi eta eguneratzea. Horrela, hobeto egokituko da errealtatera, eta hartutako neurrien eraginkortasuna areagotu egingo da.

Helburuak:

- **Produkzioaren puntu kritikoak aztertzea jasangarritasunari dagokionez.**
- **Jasangarritasun-neurriak zehaztea.**
- **Talde arduradun bat eta jan-agenda bat zehaztea**

Honako hau da jasangarritasun-planerako proposatutako edukien aurkibidea:

1. Helburuak

- 1.1. Puntu kritikoak
- 1.2. Helburuak

2. Jasangarritasun-neurriak

- 2.1. Energia
- 2.2. Garraioa eta ostatua
- 2.3. Janaria eta edaria
- 2.4. Materialak hautatzea
- 2.5. Hondakinak kudeatzea
- 2.6. Komunikazioa
- 2.7. Ingurune naturala
- 2.8. Komunitateak eta tokiko ekonomia

3. Planaren kudeaketa

- 3.1. Talde arduraduna
- 3.2. Kronograma
- 3.3. Ebaluazioa

1

Helburuak

Zeintzuk dira puntu kritikoak produkzioaren jasangarritasunari dagokionez? Aurreikus daitezkeen zein eraginetan jarri behar da arreta handiena? Zeintzuk izango dira Planaren helburu nagusiak?

Jasangarritasun Plana prestatzeko funtsezkoa da oinarrizko diagnostiko bat egitea, proiektuaren hasierako ezaugarrietatik abiatuta. Jarraian, ikus-entzunezko produkzio batean kontuan hartu beharreko hainbat alderdi kritiko aurkezten dira, Jasangarritasun Planaren abiapuntua finkatzeko.

Langile-kopurua

Zenbat eta handiagoa izan produkzioa eta zenbat eta langile gehiagok parte hartu, orduan eta handiagoa izango da ingurumen-eragina. Kontuan hartu beharreko alderdi kritiko garrantzitsuenak pertsonen garraioa eta ostatua dira, eta, horiez gain, zerbitzatu beharreko otordu-kopurua eta erabilitako baliabideen nahiz sortutako hondakinen kudeaketa.

Urruneko puntuetatik filmaketa-kokalekuetara joateko bidaiek nabarmen handitu dezakete produkzio baten karbono-aztarna. Ezinbestekoa bada Euskaditik kanpoko langileak ekartzea, trenari emango zaio lehentasuna. Ahal den neurrian, ahalik eta gehien murriztuko dira abioi-bidaiak.

Azkenik, teknikari eta langile artistiko asko dituzten produkzioetan, jasangarritasunaz arduratuko den taldeak lan-bolumen handia izango du. Kasu horietan, zailagoa izango da eco-manager eta eco-runner karguak dituztenen funtzioak bateragarri egitea beste produkzio-erantzukizun batzuekin, aurrerago ikusiko dugun moduan.

Kokalekuak

Kokalekuen kopuruak eta haien arteko distantziak eragina zuzena dute produkzio baten karbono-aztarnan. Zenbat eta kokaleku gehiago egon, orduan eta lekualdatze gehiago beharko dira filmaketan zehar, eta, beraz, pertsona eta salgai gehiago garraiatu

beharko dira. Asmoa da ahalik eta gehien murriztea kilometroen eta beharrezko ibilgailuen kopurua. Ondorioz, funtsezkoa da kokaleku-lanak egitea, filmaketarako kokalekuen kopurua eta haien arteko distantzia sinplifikatzeko, baita talde tekniko eta artistikoak ostatu hartzeko tokiena ere.

Kokalekuetan energia elektrikoa eskuratzea eta kontsumitzea ere garrantzitsua da ikus-entzunezko produkzio baten ingurumen-eraginari begira. Alde horretatik, argiztapena izan ohi da filmaketan energia gehien eskatzen duen alderdia. Oro har, energia-kontsumoa optimizatzeko, lehentasuna emango zaie sare elektrikorako konexioei eta elektrizitate berriztagarria kontratatzeari. Horrekin batera, ahal den neurrian, diesel sorgailuen erabilera minimizatu egin behar da, eta ekipo efizienteak erabili behar dira.

Espazio naturalak eta landa-espazioak bereziki ahulak dira ingurumen-eraginaren ikuspuntutik. Filmaketa batek kalteak eragin ditzake eremu natural babestuetan, ibilgailuen joan-etorrien, zarataren edo argi-kutsaduraren ondorioz. Beraz, funtsezkoa da egoera horiek aurreikustea, filmaketan zehar neurri egokiak hartzea eta horiek talde teknikoari jakinaraztea.

Produkzio-diseinua

Dekoratuak egiteko, funtsezkoa da arte-sailarekin lan egitea, ahal den neurrian ziurtatutako eta birziklatutako materialak erabiltzeko eta horiek berrerabil daitezen diseinatzeko. Era berean, jantziei dagokienez, alokatzeak eta berrabiltzeak du ingurumen-eragin txikiena.

Autodiagnostiko-fitxa

Gida honen osagarri gisa, eskuragarri dago autodiagnostiko-tresna sinple bat. Lan-fitxa bat da, eta, produkzioaren hasierako eta oinarrizko informaziotik abiatuta, puntu kritikoak identifikatzen ditu eta Jasangarritasun Plana egiteko lehentasunak ezartzen ditu.

2 Jasangarritasun neurriak

Zein jasangarritasun-neurri hartuko dira? Nola erantzuten diete lehentasunezko helburuei eta identifikatutako puntu kritikoei? Nola egokitzen dira produkzio honen zehaztasunera?

Jasangarritasun Planaren zati handienak produkzioan gauzatuko diren ekintza jasangarriak xehatzen ditu. Garrantzitsua da neurri horiek aurretiazko analisian identifikatutako helburu eta puntu kritikoei erantzutea. Edonola ere, neurriak eskuragarri dauden baliabideen eta produkzioaren berezko ezaugarrien arabera ere hautatu behar dira.

Gidak jasangarritasun-neurrien sorta bat jasotzen du, eta Green Film zigilu berdean bildutakoak nabarmendu dira. 8 irizpide hauen arabera daude taldekatuta:

- A. Energia
- B. Garraioa eta ostatua
- C. Janaria eta edaria
- D. Materialak hautatzea
- E. Hondakinak kudeatzea
- F. Komunikazioa
- G. Ingurune naturala
- H. Komunitateak eta tokiko ekonomia

Lan-espazioei dagokienez, kokalekuetan sortzen da ingurumen-eragin handiena. Hala ere, aintzat hartu behar da jasangarritasun-neurriak produkzio-bulegoan, filmaketa-platoetan edo arte-produkzioaren tailerrean ere ezarri behar direla.

Bestalde, produkzio-prozesuko etapei dagokienez, grabaketak sortzen du karbono-aztarna handiena; izan ere, pertsona askok elkarrekin lan egiten dute hainbat egun eta astetan zehar, eta energia handia eta baliabide ugari kontsumitzen dira. Horrez gain, hala ere, ez da ahaztu behar preproduzioan eta, neurri txikiagoan, postproduzioan sortzen diren eraginak aurreikustea.

3 Planaren kudeaketa

Talde arduraduna

Produkzioa-taldeak nola kudeatuko du jasangarritasuna? Zein langile arduratuko da jasangarritasun Plana betearazteaz?

Plana etenik gabe garatzeko ezinbestekoa da pertsona batek eco-manager kargua betetzea; pertsona hori arduratuko da jasangarritasunaz produkzio osoan zehar. Horrez gain, egunerokotasunean, hartuko diren neurrien kudeaketaz arduratuko den pertsona eco-runner-a izango da. Produkzioaren dimentsioen eta aurrekontuaren arabera, funtzio horiek beste erantzukizun batzuekin parteka daitezke.

Eco-manager-a

Eco-manager-a da produkzio osoan zehar jasangarritasunaz arduratuko den pertsona. Haren funtzio nagusiak dira jasangarritasun Plana idaztea eta hura betetzen dela bermatzea. Aukeran, kanpoko aholkularitza-erakunde batekin lankidetzan aritu daiteke, eta, beharrezkoa bada, eco-runner baten laguntza jaso dezake. Komenigarria da esperientzia izatea produkzio-zuzendaritzan edo produkzio-burutzan. Hauek dira haren lan xehatuak:

- Beharrezko informazioa biltzea eta jasangarritasun Plana idaztea, arreta berezia jarriz garraioaren optimizazioan.
- Bilerak egitea sail bakoitzeko arduradunekin, neurriak eta horiek gauzatzeko modua adosteko.
- Argi eta garbi finkatu eta jakinaraztea erosketekin, kontratatutako zerbitzuekin eta langileen bidaiekin lotutako irizpide berdeak.
- jasangarritasun Plana talde tekniko eta artistikoko kide guztiei jakinaraztea.
- Eco-runner-arekin koordinatzea jasangarritasun-neurriak ezartzeko filmaketan zehar.
- Ziurtagiriren bat aplikatuz gero (adibidez, Green Film edo Albert), dagozkion lanak kudeatzea.

Eco-runner-a

Eco-runner-a produkzio-taldeko kidea da, eta eco-manager-ari laguntzen dio filmaketaren eguneroko kontuetan. Haren helburu nagusia da adi egotea eta Jasangarritasun Planean zehaztutako neurriak ezartzeko bitartekoak ematea. Profil hori produkzio-laguntzailea izan ohi da, eta hauek dira haren lan nagusiak:

- Ziurtatzea jasangarritasun-neurriak betetzen direla eta aurreikusitako baliabideak eskuragarri daudela.
- Arreta berezia jartzea pertsona eta materialen garraioaren optimizazioan, baita hondakinen kudeaketa egokian ere.
- Taldearen zalantzak argitzea filmaketaren egunerokotasunean.
- Eco-manager-arekin koordinatzea.

Kronograma

Noiz egingo dira planaren kudeaketa-lan nagusiak?

Jasangarritasuna integratzat jo behar da produkzio-fase guztietan eta filmaketa osoan zehar, hau da, preprodukzioan, filmaketan eta postprodukzioan. Nahiz eta normalean eragin handiena filmaketan izaten den, gainerako etapek ere badituzte inplikazioak, besteak beste preprodukzio-taldearen garraioak, kokalekuak bilatzeko garraioak eta postprodukzio-taldearen kontsumoak.

Garrantzitsua da produktore eragileak ahalik eta azkarren islatzea jasangarritasunarekiko konpromisoa, eta pixkanaka produkzio-taldeko kide guztiak sartzea. Halaber, funtsezkoa da preprodukzioan goiz inplikatzea sailerako arduradunak, baita enpresa hornitzaileak eta tokiko erakundeak ere.

Ebaluazioa

Nola egingo da Planaren garapenaren jarraipena? Zein mekanismo aurreikusi da produkzioaren amaieran Plana ebaluatzeko?

Azkenik, postprodukzio-fasea amaitu ondoren, gomendagarria da Jasangarritasun Plana ebaluatzeko jardueraren bat egitea. Horrela, hobekuntzak hauteman ahaliko dira hurrengo produkzioetarako, eta taldearekin partekatuzko ondorioak aterako dira.

| FASEAK | LAN NAGUSIAK |
|-----------------------|---|
| Garapena | Produktore eragilearen konpromisoa |
| | Jasangarritasun Plana |
| | Preprodukzioaren aurreko asteak: |
| | Eco-manager-a izendatzea |
| | Jasangarritasun Plana eguneratzea |
| Preprodukzioa | Garraioa optimizatzeko Plana eguneratzea |
| | Eco-runner-a izendatzea |
| | Preprodukzioan jasangarritasun-neurriak ezartzea |
| Filmaketa | Filmaketan jasangarritasun-neurriak ezartzea |
| Postprodukzioa | Postprodukzioan jasangarritasun-neurriak ezartzea |
| | Amaierako ebaluazioa |
| Banaketa | Jasangarritasunaren komunikazioa |

A. Energia aurrezteak

Filmaketa guztietan kontsumitzen da energia, neurri handiagoan edo txikiagoan. Aurrezteko eta energia-efizientziarako neurriak ezartzeak eta energia berriztagarrien alde egiteak karbono dioxidoaren (CO₂) isurtzeak murrizten lagunduko du.

Helburuak

- Isurtze kutsagarriak eta energia-baliabideen xahuketa murriztea.
- Energia-baliabideen erabilera arrazionalizatzea eta aurrezpen ekonomikoa ahalbidetzea
- Ahalik eta gehien erabiltzea iturri berriztagarrietako energiak.

GREEN FILM NEURRIAK

A1 Ahal den guztietan, sare elektrikorako konexioak

Energia elektrikoko sarerako konexioak lehenestea, unitate elektrogenoen erabilera ekiditeko. Horrela, sorgailuen funtzionamendutik eratorritako erregai fosil ez berriztagarrien kontsumoa murriztu egingo da, baita eragozpenak sor ditzaketen soinu-igorpenak ere.

A2 Jatorri % 100 berriztagarriko energia-kontsumoa

Jatorri berriztagarriko energia kontsumitzeak, bai energia berriztagarriarekin funtzionatzen duten unitate elektrogenoen erabileraren bidez, bai jatorri berriztagarriko berme-ziurtagiria duen energia erosita, aukera ematen du filmaketarekin lotutako berotegi-efektuko gasen isurtzeak murrizteko.

Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak (MLBN) emandako jatorri berriztagarriko berme-ziurtagirik bermatzen dute elektrizitatea energia-iturri berriztagarritatik datorrela. Azpimarratu behar da merkatuko merkaturatzaile askok aukera ematen dutela jatorri % 100 berriztagarriko energia kontratatzeke.

A3 Argiztapen-sistema efizienteak erabiltzea: LED edo A motako bonbilak

LED (light-emitting diodes) motako argiztapen-sistemek eta A motako bonbillek, energia-kontsumo txikia izateaz gain, iraupen luzea dute.

NEURRI OSAGARRIAK

Ekipo efizienteak

Ahal denean tokiko hornitzaileei alokatu efizientzia handiko ekipo elektroniko eta digitalak (kamerak, disko gogorrak, soinu-ekipoak, etab.).

Energia aurrezteko ohiturak

Taldean sustatu energia aurrezteko kontzientziazioa eta ohiturak (ekipoak, argiak, etab.).

Sorgailu elektrikoaren erabilera optimizatzea

Erabili unitate elektrogenoak guztiz beharrezkoak direnean: kalkulatu beharrezko potentzia zehatza eta aukeratu efizientzia energetiko edo elektrikoaren duten sorgailuak.

Argi artifiziala murriztea

Identifikatu nola erabil daitezkeen argi artifiziala gutxien kanpoaldean (egin islagailuen eta argi naturalaren alde).

B. Garraioa eta ostatua

Pertsona eta materialen garraioa produkzioen ingurumen-eragin osoaren % 50 inguru da. Beraz, hori da puntu kritiko eta garrantzitsuenetako bat. Mugikortasunaren kudeaketa egokiak nabarmen murriztuko du produkzioaren ingurumen-eragina. Filmaketa-setetik gertu ostatu hartzea eta auto hibrido edo elektrikoak erabiltzea da har litekeen neurrietako bat.

Helburuak

- Joan-etorriak garraibide motor-dunetan egiteak eragiten dituen isurtze kutsagarriak murriztea.
- Bidaia eta kilometroen zenbatetsitako kopuru osoa ibilgailu mota eta garraibide bakoitzeko.
- Ibilgailu bakoitzeko bidaiarien kopurua.

GREEN FILM NEURRIAK

B1 Garraioa optimizatzeko Plana

Sarreran adierazi den moduan, filmaketa baten ingurumen-eragin handiena erregaien kontsumoarena da. Garraioa optimizatzeko Planaren helburua da ahalik eta gehien murriztea ibilgailu eta bidaien kopurua. Hura osatzeko, beharrezkoa izango da aintzat hartzea teknikariak, kokalekuak, filmaketa-platoak eta gida honetan jasotako balizko jasangarritasun-neurriak. Planak honako zenbatespen hauek jaso behar ditu:

- Filmaketan zehar, preprodukzioan eta postprodukzioan erabiliko diren ibilgailuen kopurua eta mota.
- Bidaia eta kilometroen zenbatetsitako kopuru osoa ibilgailu mota eta garraibide bakoitzeko.
- Ibilgailu bakoitzeko bidaiarien kopurua.

Filmaketan zehar, ahal den neurrian, plana betetzen dela zainduko da, eta gertatzen diren aldaketak eguneratuko dira.

B2 Ibilgailu elektriko eta efizienteak

Merkatuan eskuragarri badaude eta aukera bideragarriak badira, gomen-datzen da Zero Emisio eta Eco etiketak dituzten ibilgailuak hautatzea, Trafiko Zuzendaritza Nagusiaren sailkapenaren arabera.

Zero Emisio etiketa (urdina)

Ibilgailu efizienteenak identifikatzen ditu: bateriadun elektrikoak (BEV), autonomia hedatuko elektrikoak (REEV), elektriko hibrido entxufagarriak (PHEV) 40 km-ko autonomiarekin edo erregai-pilako ibilgailuak.

Eco etiketa (urdina eta berdea)

Hurrengo efizientzia-mailan daude, eta gehienak ibilgailu hibridoak, gas bidezkoak edo bietakoak dira: 40 km-tik beherako autonomia duten elektriko entxufagarriak, hibrido ez entxufagarriak (HEV), gas natural edo gas bidez propulsatutako ibilgailuak (GNC eta GNL) edo petrolio-gas likidotua (PGL).

B3 Ostatua: setaren 10 kilometroren barruan

Hobe da 10 kilometroko eremuan bilatzea ostatuak, filmaketa-setetik gertu edo filmaketaren mugimendu gehienen eremuan. Alde batetik, neurri horri esker autoan egindako kilometroen kopurua murriztu egiten da, baita horren isurtzeak ere. Bestetik, garraioaren antolakuntza sinplifikatzen du eta lan-erritmoa murrizten du.

B4 Ostatua: ziurtatutako instalazioak

Hotel jasangarriak lehenestea gutxienez lan-gauen % 50ean. Horretarako, ingurumen-ziurtagiriak (adibidez ISO 14024 edo Biosphere) dituzten instalazio jasangarriak aukera daitezke.

GARRAIOA OPTIMIZATZEKO PLANAREN TXANTILLOIA

- Helburuak
- Aurreikusoenak: garraibideak eta kilometroak
 - Preprodukzioa
 - Filmaketa
 - Postprodukzioa
- Optimizazio-neurriak
- Planaren kudeaketa
 - Arduradunak
 - Kronograma

NEURRI OSAGARRIAK

Distantsia handiko bidaiak

Trena da lehentasunezko garraibidea. Ahal den neurrian, ahalik eta gehien murriztuko dira abioi-bidaiak.

Kokaleku-kopurua murriztea

Ahalik eta kokaleku gutxien hautatzea eta lehentasuna ematea horien arteko gertutasunari.

Tokiko taldea

Taldean ahalik eta tokiko pertsona gehien sartzea eta horiek filmaketako kokaleku-etatik gertu bizitzea.

Garraio publikoa

Garraio publikoaren erabilera lehenestea ibilgailu pribatuaren aurrean. Talde teknikoari jakinaraztea filmaketa-setetik gertu zein garraio-aukera dituzten eta non dauden bizikleta publikoen puntuak.

Ibilgailuen optimizazioa

Edukiera handiko ibilgailuak hautatzea eta ekipoen karga eta entrega optimizatzea.

C. Janaria eta edaria

Komenigarria da gertuko eta kalitate oneko produktuak kontsumitzea, baita elikagaien xahuketa eta hondakinen sorrera ahalik eta gehien murriztea ere. Ingurumen-aztarna txikiko menuak ere ingurumen-eragina murriztuko du.

Helburuak

- Teknikari eta langile artistikoei elikadura osasuntsua, gertukoa eta ingurumena errespetatuko duena bermatzea.
- Hondakinen sorrera eta CO₂ isurtzeak murriztea.
- Elikagaien xahuketa murriztea eta kostuak aurrezteak.

GREEN FILM NEURRIAK

C1 Edateko ura

Erabilera bakarreko plastikoak eta plastikozko botilak erabiltzea ekiditea, eguneroko hondakin ugari sortzen baitituzte. Hondakin horiek ekiditeak eta ekonomia-aren eta ingurumenaren ikuspuntutik konponbide jasangarri bat aurkezteak plastikozko botilekin lotutako garraioa ekiditen du. Plastikozko botilen ordez katilu edo edalontzi berrerabilgarriak erabiltzea.

Tokiko ur-sarea

Oro har, tokiko sare eta iturrietako ura kalitate onekoa izan ohi da, eta ingurumenari begira aukera jasangarriena da.

Ur-banagailu independientek

Sareko uraren ordez ur-banagailuen bidezko hornikuntza erabil daiteke, ur-botilak baino ekologikoagoak baitira.

C2 Elikagaien hornikuntza

Platoan, taldearentzako banakako anoa gisa jaten dira elikagaiak. Aukera horrek mota askotako hondakin ugari sortzen ditu (plastikoak, organikoak, paperezkoak eta errefusa, nagusiki), eta horrek sortutako hondakinen kudeaketa oztopatzen du. Hori dela eta, jatetxeen edo zakote-ontzirik gabeko cateringaren aukerak gomendatzen dira.

Jatetxeak

Jatetxeen aukera da hondakin-kopuru txikiena sortzen duena, baxera berrerabilgarriaren erabilera bermatzen delako ia beti, eta lehengaiak jatetxeetan bertan lantzen direlako.

Zakote -ontzirik gabeko cateringa

Ezin bada jatetxe batera joan, zakote-ontzirik gabeko catering-zerbitzu batekin edo landa-sukaldeekin lan egitea gomendatzen da, esate baterako autozerbitzuko banaketa-sistemekin.

C3 Baxera berrerabilgarria

Catering-zerbitzu edo landa-sukalde batekin lan egin behar izan arren, baxera berrerabilgarriak (platerak, mahai-tresnak eta edalontziak) erabiltzea lehenetsi behar da.

C4 Edari beroak platoan

Urarekin egiten den moduan, platoan zerbitzatzen diren edari beroekin ere komeni da behin bakarrik erabiltzeko edalontziak, plastikozko nahasgailuak eta kafe-kapsulak ekiditea.

Katilu garbigarriak eta kafe ehoa

Erabili katilu garbigarriak, katilu pertsonalizatuak barne, filmaketako kide bakoitzarentzat. Horrekin batera, komeni da kafea ehoa (kapsulak ekiditea) eta solteko tea izatea.

Zelulosa-katiluak eta gazazko kafe-poltsak

Ezin badira erabili katilu garbigarriak, lehentasuna eman behar zaie zelulosa-katiluei eta botatzeko nahasgailuei, eta gazazko kafe- eta te-poltsai.

NEURRI OSAGARRIAK

Karbono-aztarna txikiko menuak

Emisio gutxiko menuak eskaini: begetal asko eta animalien proteinak dituzten dietak.

Restaurantes comprometidos con la sostenibilidad

Joan km0 produktua, sasoikoa edo ekologikoa lehenesten duten jatetxeetara.

Isurtze txikiko garraioa

Ahal den neurrian, kontratatu isurtze txikiko garraioa (cargo-bikes edo furgoneta elektrikoak) sustatuko duten catering-enpresak.

Mokadu osasuntsuak

Atsedenaldi osasuntsuagoa sustatu, eta lehenetsi fruta opil industrialen aurrean.

Jasangarritasunarekin konprometitutako hornitzaileak

Aukeratu garapen jasangarriarekin konprometitutako enpresa hornitzaileak: erosketak, hondakinen kudeaketa, ontziak murriztea, etab.

Kopuruak optimizatzea

Erosketetan kopuruak doitzea, janariaren xahuketa ekiditeko.

Janaria dohaintzan ematea

Kontsumitu gabe gelditu den soberako janaria tokiko elkarte bati eman ahal zaio dohaintzan.

D. Materialak hautatzea

Filmaketan zehar hainbat material erabiltzen dira. Ingurumenean duten eragina ahalik eta gehien murrizteko modurik onena materialen kopuru zehatza erabiltzea da; horrez gain, horiek ingurumena errespetatu eta material horiek berrerabiltzea sustatu behar dute. Birziklatutako materialekin fabrikatutako produktuek CO₂ gutxiago isurtzen dute material birjinarekin fabrikatutako produktu baliokideek baino.

Helburuak

- Filmaketan lan egiten duten pertsonen osasuna bermatzea, baita kokaleku eta seten zaintza ere.
- Ahal den neurrian ingurumena errespetatzen duten materialen erabilera sustatzea.
- Materialen xahuketa ekiditea eta berrerabiltzeko alternatiba efizienteak bilatzea.

GREEN FILM NEURRIAK

D1 Hornitzaileak eta ziurtatutako produktuak

Filmaketa-seta prestatzeko materiala ezin bada alokatu, kontuan hartu behar dira materialak berrerabiltzeko aukera ematen duten eta ingurumen-eragina murriztuko duten alternatibak (birzikla edo berrerabil daitezkeen materialak, ingurumen-ziurtagiriak dutenak, etab.).

Materialen ingurumen-ziurtagiriak aztertzea, ahalik eta konponbide ekologikoena aurkitzeko, ahal bada tokiko enpresa hornitzaileena. Arreta berezia jarri behar zaio materialak deuseztatzeko prozedurari, bereziki pintura, berniz eta ontzien kasuan.

Abiapuntu gisa, material eta ziurtagiri hauek erabil daitezke:

- FSC edo PEFC ziurtagiria duen egurra.
- Ecolabel edo Blauer Engel ziurtagiria duten berniz eta pinturak.
- ISO 14001 edo EMAS ziurtagiria duten eraikuntza-materialak.

D2 Berrerabili edo birziklatutako materialak

Birziklapena eta berrerabiltzea funtsezkoak dira ingurumen-jasangarritasunean. Birziklatutako eszenografia-elementuak edo berrerabilitako jantziak erabiltzeak ingurumen-eragina murrizten du eta aurrezpen ekonomikoa dakar.

Eszenografia-materiala, atrezzo eta jantziak alokatzea lehenestea eta material berria erosta ekiditea. Ahal den neurrian, filmaketaren kokalekutik gertuko enprekin hornikuntza- eta alokairu-akordioak finkatzea.

Erosketak egitean, aukera bideragarriak badaude, birziklatutako materialez osatutako produktuak lehenestea.

D3 Dekoratuetoako materialak berrerabiltzea

Dekoratuak berrerabili eta birziklatzea ahalbidetzea. Horretarako, komenigarria da dekoratuak diseinatzean aintzat hartzea horiek desmuntatu eta erabilitako materialak bereiz daitezkeen.

Filmaketa amaitu ondoren materiala aprobetxatu ahal izateko, komenigarria da erakunde edo elkarteekin adostea materialaren zati bat hartzeko. Horrela, bestela bota eta hondakin bihurtuko lirakeen materialak berrerabiltzeko aukera ematen da.

D4 Komunikazio digitala

Ahalik eta gehien murriztea paperezko komunikazioa. Filmaketa- eta garraio-aginduak formatu digitalean ematea (posta elektronikoa, mezularitza-aplikazioak). Dokumentazioa inprimatu behar bada, hobe da zuri-beltzean eta alde bietan inprimatzea. Filmaketan zeha paper % 100 birziklagarria erabiltzea.

NEURRI OSAGARRIAK

Erosketa arduratsua

Erosketa-irizpide berdeak finkatzea, garapen jasangarrian oinarrituta. Botatzeko produktu ez-biodegradagarriak ekiditea.

Erosketa-zerrendak

Erosketa-zerrendak prestatzea erosketa arduratsuen irizpideetan oinarrituta, filmaketaren egoera desberdinetara egokituta.

Alokairua lehenestea

Aukerak eskuragarri dauden heinean, alokairuaren edo zerbitzuen prestazioaren alde egitea.

Botatzeko produktuak ekiditea

Erabilera bakarreko material eta produktuen erabilera mugatzea.

E. Hondakinen kudeaketa

Filmaketa-egun bakoitzean eta hark irauten duen bitartean, funtsezkoa da hondakinen kudeaketa egokia ziurtatzea. Materialak berreskuratu eta birziklatzea lehenetsita, besterik gabe bota ordeztu, zinema-produkzioen ingurumen-eragina murrizten da.

Helburuak

- Ahalik eta gehien murriztea zabortegean botatzen edo erretzen diren hondakinen sorrera.
- Ahalik eta gehien handitzea birziklatu beharreko material eratorrien kopurua.
- Hondakinak zuzen kudeatzea.

GREEN FILM NEURRIAK

E1 Hondakinen gaikako bilketa

Hondakinak gaika biltzeko sistema ezartzea lan-espazioetan: kokalekuak, filmaketa-platoak, eraikuntza-tailerrak, produkzio-bulegoak, etab. Komenigarria da neurri hauek hartzea:

- Lan-espazio guztietan hondakin bakoitzarentzako ontziak jartzea, horiek erabiltzeko jarraibide argiekin eta erraz identifikatzeko moduan.
- Teknikariei eta langile artistikoei jakinaraztea hondakinak deuseztatzeko finkatutako prozedura.
- Hondakinak behar bezala deuseztatzea, kokaleku bakoitzean indarrean dagoen hondakinak kudeatzeko tokiko sistemaren arabera.

NEURRI OSAGARRIAK

Kokalekuak garbitzea

Kokalekuak garbitzea amaieran. Eguna amaitzean, espazioa hasieran baino txukunago uztea.

Komun lehorrak

Ahal bada, pixatoki eta komun lehor ekologikoak alokatzea kanpoko filmaketetarako.

F. Kanpo komunikazioa

Zinema-produkzioeko jardunbide egokiak hedatzea funtsezkoa da sektorea eraldatzeko. Gainera, argudio ona izan daiteke ikus-entzunezko produktuak sustatu eta banatzeko.

Helburuak

- Publikoa kontzientziatzea ingurumen-jasangarritasunarekin lotutako kontuei buruz.
- Zinema-sektorea sentsibilizatzea eta, horretarako, neurriak eta eskuragarri dauden alternatibak erakustea.

GREEN FILM NEURRIAK

F1 Jasangarritasuna jakinaraztea

Ezarritako Jasangarritasun Plana eta haren emaitzak kanpoan jakinarazteko, honako ekintza hauek egin daitezke:

- Hedabideentzako prentsa-txostena.
- Produkzio-prozesua eta hartutako jasangarritasun-neurriak aurkezteko bideoa.

NEURRI OSAGARRIAK

Zigilu berdea

Europar eskuragarri dauden ziurtagiri berdeetako batzuk aplikatzea (Green Film, Albert).

Merchandising arduratsua

Merchandising-a izanez gero, izan dadila tokian ekizitakoa edo jasangarritasun-irizpideak azpimarratzen dituen.

G. Beste neurri batzuk

NEURRI OSAGARRIAK

G1 Ingurune naturala

Ingurune naturala eta landaguneak bereziki zaugarriak dira kanpoko esku-hartzeen aurrean. Zinema-filmaketa batek nabarmen kaltetu ditzake ekosistema ahulak. Kasu horietan, funtsezkoa da preproduzio-lan ona egitea eta neurri egokiak hartzea filmaketan zehar.

Naturagune babestuak

Filma naturagune babestu batean filmatzen bada, ezinbestekoa da espazioa kudeatzeko taldearekin harremanetan jartzea eta euren argibideetara egokitzea.

Ibilgailuen eragina

Animaliei eragindako eragozpenak, landareetan egindako kalteak, ibilgailuek harrapatzea eta bestelakoak ekiditeko, gomendagarria da trafikoa kontrolatzeko neurri zorrotzak ezartzea.

Ekosistemen kalteak

Ingurune naturaleko eta nekazaritza-ingurune animalia eta landareak dira elementu ahulenak, eta, beraz, berehala eta zuzenean jasaten dituzte filmaketen balizko eragin negatiboak.

Animalia eta landareei eragindako eragozpenak

Zarata eta argi-kutsadura kontuan hartu beharreko eraginak dira naturagune eta landaguneetan.

G2 Komunitatea eta tokiko ekonomia

Kokalekuetan bizi direnengan modu positiboan eragitea ere bada zinema-produkzioa jasagarriago egiteko modu bat. Komunitateek filmaketari etekina ateratzeko, preprodukzioa funtsezkoa da.

Zero kilometroko figuranteak

Bideragarria bada, gomendagarria da filmaketaren kokalekutik gertu bizi diren figuranteen kontratazioa lehenestea.

Tokiko enpresei erosi eta haiek kontratatzea

Ahal den neurrian, komeni da lehenestea zerbitzuak emateko edo produktuak hornitzeko kontratatutako enpresak kokalekuetatik gertukoak izatea.

Eraginpekoak izan daitezkeen herritarrekin bilerak

Gomendagarria da bizilagunekin bilerak egitea, filmaketaren berri emateko eta ahal den neurrian eragozpenak ahalik eta gehien murrizteko ezar daitezkeen neurriak adosteko.

Eranskinak

Neurrien laburpena

A. Energia aurreztea

| | | |
|-----------|--|--------------------------|
| A1 | Sale elektrikorako konexioak | <input type="checkbox"/> |
| A2 | Jatorri %100 berriztagarriko energia-kontsumoa | <input type="checkbox"/> |
| A3 | Argiztapen-sistema efizienteak erabiltzea | <input type="checkbox"/> |
| | Ekipo efizienteak | <input type="checkbox"/> |
| | Energia aurrezteko ohiturak | <input type="checkbox"/> |
| | Sorgailu elektrikoen erabilera optimizatzea | <input type="checkbox"/> |
| | Argi artifiziala murriztea | <input type="checkbox"/> |

B. Garraioa eta ostatua

| | | |
|-----------|---|--------------------------|
| B1 | Garraioa optimizatzeko Plana | <input type="checkbox"/> |
| B2 | Ibilgailu elektriko eta efizienteak | <input type="checkbox"/> |
| B3 | Ostatua: setaren 10 kilometroen barruan | <input type="checkbox"/> |
| B4 | Ostatua: ziurtatutako instalazioak | <input type="checkbox"/> |
| | Distantzia handiko bidaiak | <input type="checkbox"/> |
| | Kokaleku-kopurua murriztea | <input type="checkbox"/> |
| | Tokiko taldea | <input type="checkbox"/> |
| | Garraio publikoa | <input type="checkbox"/> |
| | Ibilgailuen optimizazioa | <input type="checkbox"/> |
| | Garraiatze efizientea | <input type="checkbox"/> |

C. Janaria eta edaria

| | | |
|-----------|--|--------------------------|
| C1 | Edateko ura | <input type="checkbox"/> |
| C2 | Elikagaien hornikuntza | <input type="checkbox"/> |
| C3 | Baxera berrerabilgarria | <input type="checkbox"/> |
| C4 | Edari beroak platoan | <input type="checkbox"/> |
| | Karbono-aztarna txikiko menuak | <input type="checkbox"/> |
| | Jasangarritasunarekin konprometitutako jatetxeak | <input type="checkbox"/> |
| | Isurtze txikiko garraioa | <input type="checkbox"/> |
| | Mokadu osasuntsuak | <input type="checkbox"/> |
| | Jasangarritasunarekin konprometitutako hornitzaileak | <input type="checkbox"/> |
| | Kopuruak optimizatzea | <input type="checkbox"/> |
| | Janaria dohaintzan ematea | <input type="checkbox"/> |

D. Materialak hautatzea

| | | |
|-----------|---|--------------------------|
| D1 | Hornitzaileak eta ziurtatutako produktuak | <input type="checkbox"/> |
| D2 | Berrerabili edo birziklatutako materialak | <input type="checkbox"/> |
| D3 | Dekoratuetoako materialak berrerabiltzea | <input type="checkbox"/> |
| D4 | Komunikazio digitala | <input type="checkbox"/> |
| | Erosketa arduratsua | <input type="checkbox"/> |
| | Erosketa-zerrendak | <input type="checkbox"/> |
| | Alokairua lehenestea | <input type="checkbox"/> |
| | Botatzeko produktuak ekiditea | <input type="checkbox"/> |

E. Hondakinak kudeatzea

| | | |
|-----------|----------------------------|--------------------------|
| E1 | Hondakinen gaikako bilketa | <input type="checkbox"/> |
| | Kokalekuak garbitzea | <input type="checkbox"/> |
| | | <input type="checkbox"/> |

F. Kanpo-komunikazioa

| | | |
|-----------|-------------------------------|--------------------------|
| F1 | Jasangarritasuna jakinaraztea | <input type="checkbox"/> |
| | Zigilu berdea | <input type="checkbox"/> |
| | Merchandising arduratsua | <input type="checkbox"/> |

G. Beste neurri batzuk

| | | |
|-----------|--|--------------------------|
| G1 | Ingurune naturala | <input type="checkbox"/> |
| | Naturagune babestuak | <input type="checkbox"/> |
| | Ibilgailuen eragina | <input type="checkbox"/> |
| | Ekosistemen kalteak | <input type="checkbox"/> |
| | Animalia eta landareei eragindako eragozpenak | <input type="checkbox"/> |
| G2 | Komunitateak eta tokiko ekonomia | <input type="checkbox"/> |
| | Zero kilometroko figuranteak | <input type="checkbox"/> |
| | Tokiko enpresei erosi eta haiek kontratatzea | <input type="checkbox"/> |
| | Eraginpekoak izan daitezkeen herritarrekin bilerak | <input type="checkbox"/> |

Tresna osagarriak

Autodiagnostiko-fitxa

Gida honen osagarri gisa, BGFren webgunean eskuragarri dago autodiagnostiko-tresna simple bat. Lan-fitxa bat da, eta, produkzioaren hasierako oinarriko informaziotik abiatuta, puntu kritikoak identifikatzen ditu eta jasangarritasun Plana egiteko lehenetsunak finkatzen ditu.

Eredu-txantiloia

Basque Green Film webgunean eskuragarri dago, deskargatzeko, Jasangarritasun Planaren txantiloia editagarri bat, proposatutako edukien aurkibidearekin.

Beste baliabide batzuk

Zinema jasangarriaren gidak

Europa osoko film office direlakoek eta erakunde publikoak geroz eta gida gehiago argitaratzen dituzte produkzio jasangarrietarako. Bakoitzak araudiaren edo tokiko baliabideen berezitasunak gehitzen ditu, baina, oro har, ez dago alde handirik haien artean. Jarraian, gaztelaniaz eskuragarri dauden garrantzitsuenetako batzuk aurkezten ditugu:

- [Guía de rodaje sostenible](#)
Promálaga. Jatorrizko honetan oinarrituta: [Ecoprod](#).
- [Guía de buenas prácticas en la producción audiovisual](#)
Barcelona Film Commission.
- [Guía para la incorporación de criterios de sostenibilidad en las filmaciones y los rodajes](#)
Catalunya Film Commission
- [Jardunbide egokien gida](#)
Vitoria-Gasteiz Film Office. Promálaga gidan oinarrituta.
- [Green Production Guide](#)
PGAk garatuta (AEB). Ingelesez.

Zinemako karbono-aztarnaren kalkulagailua

Tresna horiek ikus-entzunezko ekoizpen batek isuritako karbonoaren pisua kalkulatzeko erabiltzen dira, ekoizteko emandako datu eta zenbatespenetatik abiatuta. Produkzio batean isurtzeak murrizteko neurriak finkatzeko erreferentzia-puntu bat ematen dute, baita karbono-aztarna konpentsatzeko ere.

Eskualde eta nazioko erakundeek kalkulagailu ugari eskaintzen dituzte, sareko plataformetan edo kalkulatu-orrietan oinarrituta. Hauek dira garrantzitsuenak eta finkatuenak:

- [ALBERT](#)
Albert ziguilaren erreferentziako kalkulagailua. Eskuragarri Europa osoan.
- [PEAR](#)
PGAk garatua. Excel formatuan. Ingelesez.
- [EURECA](#)
Europako etorkizuneko kalkulagailu komuna.
- [VITORIA-GASTEIZ FILM OFFICE](#)
Promálagaren tresna oinarritutako kalkulagailua. Excel formatuan.



Green Film

Gida hau Green Film ziurtagirian onarrituta dago. 2024tik aurrera, aurrekusi da zigilu berde hau ezartzea Eusko Jaurlaritzaren ikus-entzunezko kultura-politketan.